

HUMANITATEAREN UNE GORENAK

Lorik ez



ARITZ GALARRAGA

Daitort, inoiz desio izan dut insomnia. Ea, ondo lo egin dut orain arte, asko-asko ere ez, zortzi ordurekin aski, zazpirekin astea aurrera joan ahala hasten naiz nabaritzen nekea. Baina ez dut problemarik edozein ordutan esnatzeko, zerbait berezia egin behar bada, norabait joan –ikasturte batez goizeko 5:30ean esnatzen nintzen, eta ez nuen ezer berezirik sentitu, kaleko baretasun zerutiarrak aparte-. Egunak ematen ez didan sentazioa gainetik ezin kendu nabil, ordea, ordu gehiagoz aktibo, ordu gehiagoz produktibo izateko nahia. Ezen, pentsa, lau ordu aurreztuz gauero, seigarren egunerako 24 ordu pilatuko nituzke, egun oso bat. Izan ere, izaki gorena da lorik egiten ez duena. Soilik lo egiten dute tentelek. Begira Cioranen sententzia hau –agian lorik egin gabe egun asko zeramatzan egun batean idatzia–: “Tragedia hau beren laruan bizi izan ez dutenek ezin dute ezer ulertu. Insomnia, bizitzan izan dezakegun esperientziarik handiena da”.

“Behinola, lo egiten nuen”. Hala hasten da Marie Darrieussecqen liburu berria, *Pas dormir*, insomniaoren autobiografia moduko bat. Lorik egin gabeko hogeitun urteren emaitza. “Zer moduz zaude?” galdetu ordez, “zer moduz egiten duzu lo?” galdetzen duen pertsona batena. Mundua banatzen baita lo egin dezaketenen eta lo egin ezin dezaketenen artean. Lo da gure itzala, gure erdia, babesten gaituen erdia, sostengatzen gaituena. Lo gu da, gure absentsian. Gal dezakegu, aitzitik. Insomniaok, aldiz, ez gaitu uzten, egunean zehar ere hor da, egunez ere jarraitzen du bere lan suntsitzailea. Kezka guztiak kezka bakar bilakatzearaino: nola egin lo egiteko. Hori besterik ez. Lo egin. Daitort, inoiz desio izan dut insomnia. Ondo lo egin baitut orain arte. Orain hasi naiz okerxeago egiten, ohera sartu, nahiko azkar lokartu, eta handik ordu erdira, burua bueltaka, ezin berriz begiak bildu. Tira. Zutabea bukatzeko ordua. Erlojuan 4:44. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Bortxaketa

Emakume batek salatu du hainbat gizonek drogatuta eta bortxatuta dutela Bilboko Zazpikaleetatik hurbil dagoen etxebizitza batean. Irailaren 24tik 25erako gauean izan zen. Emakumeak salaketa jarri du eta Ertzaintzak ikerketa hasi du.

Puigdemont

Sardiniako aireportuan atzeman zuten polizia Carles Puigdemont, joan den astean, ustez sedizio delituagatik. EBk immunitatea kendu zion atxilotzeko arriskurik ez zegoela ebatzita. Ordu batzuetara auzitegiak aske utzi zuen, irla ez uzteko baldintzarekin.

Mozal Legea

Mozal legeaz zigortu dituzte *Ahotsa* eta *Ekinklik*-eko kazetari bana, Aroztegiko protestez informatzeagatik. Seirehuna euroko isunarekin zigortu dituzte. Guardia Zibilak leporatzen die agenteak identifikatzea errazten duten irudiak publikatu izana.